**Hauteskunde sindikalak. Irakaskuntza-sektorea (funtz/ordezko) eta lan-legepeko kolektiboak. 2018ko abendua-2019ko martxoa**

Atzo, urtarrilak 28 astelehena, hauteskunde sindikaletarako mahaiak osatzeko egunean, hautesleen behin behineko errolda gauzatu zuen administrazio publikoak. Errolda horretan, **atzoko datarekin zerbitzu aktiboan** zeuden langile guztiak agertu behar dute.

Lan-legepeko langileen kasuan, erroldan egoteko, langileak 30 zerbitzu egun bete behar izan dituzte ikasturte honetan.

**Afiliatu/Langile** guztiei dei egiten diegu behin behineko **errolda kontsulta dezaten.**

Hautesleen erroldak kontsultatzeko, erabiltzailea eta pasa-hitza sartu behar da www.irakasle.eus-en (Irakaslegunea). Ondoren sartu: Hautesleen errolda.




Behin-behineko **erroldan agertzen ez denak** eta **urtarrilaren 28an zerbitzu aktiboan zegoenak**, **erreklamazioa aurkeztu behar du** ondorengo posta helbide honetan: hezk.sind@euskadi.eus, **urtarrilaren 28tik otsailaren 4ra, biak barne.**

Informazio gehiago, azpiko loturan:

**http://www.euskadi.eus/langile-hauteskunde-sindikalak/web01-a3hekon/eu/**

